

Nafarroa oinez, 2010 **eta Euskaltzaindia**

Atarrabia / Villava, 2010-IX-24

Euskaltzaindia

ERROZ AIZKORBE, Iñaki
Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria

Arratsaldeon.

Gure Ikastolak, *Nafarroa Oinez* 2010k, Euskaltzaindiarekin batera antolatzen duen ekitaldi honetara ongi etorriak izan zaitezte.

Hiruzpalau aste besterik ez direnean falta *Nafarroa Oinez* 2010a ospatzeko atsegin handiz hartzen ditugu gaurko gonbidatuak. Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiko ordezkariak gurekin izatea eta baita ere ikastole-tako ordezkariak, familia eta bestelakoak, ongietorriak denak.

*Nafarroa Oinez*ak aurten helburu bikoitza duela esan daiteke, asko labur-bilduz. Ikastolak 40 urte bete ditu aurten eta hasiera-hasieratik dokumentazio eta promozio ezberdinetan batxilergoa sortzearen ideia gure kooperatibaren nahia izan da. Arrazoi ezberdinak direla eta, beste lehentasun batzuei ekin behar izan diogu iraganean eta orain momentua iritsi dela uste dugu.

Hauxe da, beraz, helburu zehatza: *batxilergoa sortzea*, 16-18 adin tartean horretan ere ikasleek ikastolan ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten; aukera hau ez da bakarrik guretzat izango; beste ikastola eta eskoletako ikasleriarentzat ere irekia izanen da.

Bigarrenik, proiektu zehatz honetatik haratago doan helburua du *Nafarroa Oinez* festak: gizartean eragin nahi dugu, euskararen alde. *Euskara guretzat atera eta kalean erabilia izatea. Euskeraz bizirik nahi dugu.* 1991ko *Nafarroa Oinez*

roa Oinez **Euskaraz bizi** lemapean antolatu genuen orain dela 19 urte, Jose Luis Gorostidiren zuzendaritzapean, eta oraindik ere hauxe jarraitzen du gure ardatza izaten. *Euskara ardatz duen proiektu eleanitza* da gurea. Mundu bat da ikastola mundura begira...!

Munduz mundu, mendez mende esamoldearekin **EUSKARAK KULTUR ONDARE GISA DUEN BALIOA** azpimarratu nahi izan dugu, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

Munduz mundu esamoldearekin gure identitate propioa izatea, gure kasuan euskalduna, eta mundura zabalik egotea erabat bateragarria direla adierazi nahi dugu.

Eta testuinguru honetan kokatzen dugu ere gaurko ekitaldia:

3 hizlari ditugu:

- Patxi Salaberri euskaltzain osoa eta ikastolako guraso ohia, Iruñerriko euskararen ezaugarrietaz arituko da.
- Jarraian Patxi Zabaletak hartuko du hitza eta hil berri den Jorge Cortes Izal euskaltzalearen ibilbideaz hitz egingo du, haren ibilbide berri-zaileaz arituko da.
- Momentu honetan Ikastolako abesbatzak *Nire herriko neskatxa maite* kanta interpretatuko du.
- Ondoren, Iñaki Etxezarreta jaunak, ikastolen izenean, *Ikastolen mugimendua, dabilen herria* liburuaren gorabeheren berri emango digu.
- Jarraian *Eperrak* izeneko kanta ospetsuaz gozatzeko aukera izango dugu eta, azkenik, *agurra* Andres Urrutia euskaltzainburuarena izango da.

Urriaren 17an, euskararen alde, danok Atarrabiara!

Iruñerriko euskararen ezaugarriak

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi
Euskaltzain osoa

Iruñeko bereko euskararen inguruan mintzatzea zaila da, hagitx testu gutxi ditugulako eta, beraz, hiriko hizkera nolakoa zen ongi ez dakigulako. Kontuan hartu beharra dago Iruñean, dokumentazioa dagoenetik, anitz lekutako jendea bizi izan dela, eta ez naiz bakarrik XII. mendean geroz guregana etorri ziren frankoek ari. Izan ere, Iparraldekoak, erdarazko dokumentazioan «basco»-tzat jotzen diren horiek ugariak ziren Nafarroako hiriburuan, eta Nafarroa Garaiko herrietako jendeak ere ugariak ziren. Honen, dudarik ez dago, bortizki eraginen zion Iruñeko euskarari, eta inguruko zendea eta ibarretako hizkeretarik bereiziko.

Arbasoren bat hiriburutik kanpokoa zutenen artean XVI. mendeko iruindar olerkaria dugu, normalki *Juan de Amendux* izenaz ezagutzen dena, baina dokumentazioan *Juanes* edo *Juanis* deitua zena. Ez dut uste huts larririk eginen dugun *Joanes Amenduzekoa* deitzen badugu, erroak, hein batez segurik, Amikuzeko herri horretan baitzituen. Urte batzuk lehenago Bernart Etxeparekoa bezala presondegira igorri zuten, Tafallakora, eta han idatzi omen zuen bere olerki laburra. Honela dio 1564an:

*Hemen natza ortzirik noizbait gozoeritzi-
rik herioak uste gabe doloroski egotzirik
ene anima Jangoikoagana beldurreki partiturik
lagungabe bide luzean peril asko pasaturik
onak eta honrak bertan munduak idekirik
plazerak azkeno atsekabe bihurturik
aideak eta adiskideak arte gutis atzendurik*

*ikuste[n] tut isuririk arzeze guzia deseginik
 argi gabe illumbetan ustel eta kirasturik
 nigar begi bapederak bere aldias oroiturik
 niork ere izanen eztu ni[k] eztudan partidurik
 ene anima duzuen gomendatu garitates mobiturik
 zarraizkidate g- bertan itzok ongi notaturik
 Josafaten baturen gara judizion elkarreki
 bitartea lo dagigun bakea dela guziaki*

Honen ondoren badira Iruñean argitaratutako olerki batzuk, baina ez, dakigula, bertako euskararen idatzitakorik. Utergako Joanes Beriaingoak, XVII. mendearen lehen laurdenean, Iruñeko euskararen idazten duela dio eta XIX.aren hastapenean Elkanoko Lizarragak Iruñerrikoan izkiriartzen duela, baina ez dute berdin egiten.

XVIII. mendean Zildoizko (Ezkabartekoa beraz) udal agiria dugu:

Milla eta zapitan aun eta hirutan hoge eta hamirugarren urtean, zela-rik rejidore Juan de Sueskun. Gostunbratzen zen bezala entregatu zitzaizkio Urteberri egunareki auzoko armak, eta hartu zitue por inmentario, zerengatik alziñeko urte zenbaitez faltatu ziren zenbait paper [...]. Eta orai esplika detxagun zer diraden gauza habek: dirade erregua eta erreguerdia, eta gaitzurua eta almotea, eta halaber dirade pinta eta pinterdia eta kuartilloa, eta halaber dirade pisu romanoak. Eta pisu balantzak gantxodunak eta pisu harriak dirade sei librakoa eta iru librakoa eta bi liberakoa eta liberakoa, eta libera erdia eta kuartrona, iago zartagi bat.

Hemezortzigarren mendearen bigarren erdian eta hemeretzigarrenaren lehenean Elkanoko Joakin Lizarragaren lana dugu. Idazle oparoa izan zen, aipatu moduan «Iruñerriko euskararen» idazten zuena, itzulpenak berekin dakarren morrontza alde bat uzten badugu behintzat. Hona hemen pasarteño bat:

Batere etze mogitu erran guziaki, baizik baliente ausart guzien alzinean erran zue: Oh enperadore jauna, hobe luke horrek ere ezaun balez ta adoratu Jangoiko bakar egiaskoa; hobeki berak segura lezoke hemengo imperioa ta eman lezoke berze bat eternoa ondorean. Ezaumentu gau eman dida niri ta hala banoan dire promesa eta mehatxu in dazkidanak, apartarazteko ene Jaingoikoaganik.

XIX. mendearen hasieran, Napoleonen denboran, Reille frantses jeneralak bi bando atera zituen Iruñean, erdaraz eta euskaraz. Hauetan frantsesen kontrako gerrillarien buruei prezioa paratzen zaie. Honela dio lehenak:

Nafarroako Jenerala eta Gobernadoreak. Aspaldian pentsatzen du damutasun handiarekin probintzia honen trabajuak haundiak direla, zergatik bandidoen komandanteak ez tuten itzuli nahi beren leku antiguetara eta atra ziren kondizionera. Kontserbatzen dute poderea, jabetu dire manatzeas terrorearen medios, azpian kontserbatzeko anitz mutil gazte, zein baitaude suspiratzen itzultzeko beren etxetara.

Kontsideratzen dut, bada, enpleatu behar direla, eta paratu behar direla modu posible(ak) guziak akabatzeko gizon batzuk hain oposituatuak Nafarroko bakiari, zergatik gizon hebek dela medio Erreino hau esponiturik dago arruinatzera osoki. Egiten dute, bada, gizon hebek egunero aski gaizki, manatzen dutela asesinatzea, hiltzea eta beharriak ekentzea alkatari, regidoreri, bertze anitz pertsoneri.

Ez dakigu hau erabat Iruñekoa euskara zen, baina oso urrutikoa ere ez zen izanen segur aski. Aditu duzue beraz pixka bat Iruñeko euskara zaharra eta ez hain zaharra.

Ondoko testu hau Koldo Artolak Ezkabarteko Anotz herriko Celedonia Zenotz Artzeri 1981ean eta 1982an egindako grabaketan zati bati dagokio:

Gúre herríre tórtzentzén Anozí barko apéza, méza matéra. Te ní e(g)óten nitzén atárien, ta pástentzénian erráten níón: «Ave María Purísima». Egún batéz érran níón apézai: «Ave María Purísima» ta géro errán níón «gúre béiek ín digú txekór bát». Apézak géro írri ítentzuén ta [j]oántzén méza mátera.

Orain, labor-labor, gure alderdiko euskararen ezaugarri batzuk aipatuko dizkizuet. Sarrera moduan adierazi nahi dizuet Iruñerrian bi alderdi bezala zeudela: handienak, mendebaldekoak Goñerrira eta Sakana aldera jotzen zuen, eta txikiena, ekialdekoa (Eguesibar batez ere) Artzibarrekin, Esteribar hegoaldearekin eta Erroibarrekin zihoan, eta badirudi Aezkoako euskaratik hurbil samar zegoela. Gero badira ongi ezagutzen ez ditugun zendeak eta ibarrak, Galar eta Aranguren, adibidez.

Bestalde, Iruñearen goiko aldean dagoen Ezkabarteko euskara oraintsu itzali da baina baditugu testuak eta grabaketaren bat (ikus gorago). Itxura duenez, Odieta eta Ultzama aldera jotzen zuen, nahiz, jakina, Eguesibarkoaren franko eite handia izan. Atarrabiako hizkera, antza, Ezkabarteko horren biziki irudia zen. Hemen gogoan hartu behar dugu Iruñeko eta Iruñerriko hizkera lekutzearekin Ezkabarteko euskaldunek goragoko, eremu euskalduneko jendeekin ihardukiko zutela euskaraz eta beren hizkera hein batean bestelakotuko, oharkabean segur aski.

Orain ezaugarri gutxi batzuk aipatuko dizkizuet:

1. Iruñerriko mendebaldean *bizarra*-tik *bizerra* ateratzen zen, edo *engañatu*-tik *engeñetu*. Era berean, *eskuan* errateko *eskuen* ibiltzen zuten eta *gauza* adierazteko *gauze*, oraindik Baztanen-eta bezala. Hau Ekialdean, Elkano alderdi horretan, ez zen egiten, hau da, bertan *bizarra*, *engañatu*, *eskuan* (*éskwan*) eta *gauza* ziren ohiko aldaerak.
2. Oso normala zen diptongoak irekitzea eta ixtea, alegia, *deus*, *eun*, *euri*, *neurritu* adierazteko *daus*, *aun*, *auri*, *naurritu* ibiltzen zituzten, eta *hoge* errateko *hogai*. Bestalde, *mingain*, *urda* edo *jai* adierazteko *mingein*, *urdei* eta *xei* zerabiltzaten.
3. Hitz barnetik bokalak maiz kentzen ziren: *abrats*, *abre*, *atra*, *batre*, *bedratzi*, *drzaguzu* (< **derazaguzu* «iezaguzu»), *drzkguzu* (< **derazkiguzu* «iezazkiguzu»), *gaitzen* (< *gaitzen*), *hobrena*, *kuartrona* (< *kuarterona* < *cuarterón* «libera laurdena»), *maindre*.
4. Zenbait soinu tokialdatzen ziren: *arratoi* > *arratio*, *arrazoi* > *arrazio*, *montoi* > *montio*, *pozoi* > *pozio* eta, bide beretik, *saroi* > *sario*, baina beti *sagarroi*, sekulan ez **sagarrio*.
5. Hitz hasierako *j*-soinua *x*-bihurtzen zen, leku eta hitz gehienetan: *jai* > *xei*, *jautsi*, *jaitsi* > *xautsi*, *xaitsi*; *jaka* > *xaka*, *jakin* > *xakin*, *jo* > *xo*; *justo*, *justoki* > *xusto*, *xustoki*, e.a.
6. *Ñ* eta *ll* gehiago aditzen ziren mendebaldean, eta gutxiago ekialdean: *billo* «ilea» / *bilo*, *illebete* / *ilabete*, *ille* «artilea» / *ile*, *illergi* / *ilargi*, *txiñurri* «txindurria» / *txinurri*, e.a.

7. Ekialdean *gizonek in dute* erraten zen, eta mendebaldean, berriz, *gizonak in dute*.
8. Ekialdean *amain anaia* erraten zuten edo *mutikoain biloa* eta mendebaldean *aman anaie* eta *mutikoan billoa*.
9. Iruñerri osoan, Iruñean ere bai, *zureki, bereki, gureki, gizoneki, iagoreki, mutikoeki, oneki, zeñeki* erraten zen, *-n-rik* gabe, oraindik Arruazu alderdi horretan egiten duten bezala.
10. Bestalde, *alorretaik, etxetaik, mendietaik* erraten zuten ekialdean baina *alorretatik, etxetatik, mendietatik* mendebaldean.
11. Era berean, *aitainganik, amainganik, osabainganik* ibiltzen zituzten ekialdean, baina *aitangandik, amangandik, osabangandik* mendebaldean.
12. Destinatioa deitzen dugun kasuaren bukaera beti *-aindako, -andako / -endako* zen: *anaiaindako – anaiaandako / anaierendako*. Hauekin batean *zuretako, beretako, gorputzendako, kanpokoendako* eta beste genituen.
13. Bada ezaugarri nabarmen bat oraindik Aezkoan ibiltzen dena, eta lehen Iruñerriko ekialdean ere, Eguesibarren-eta ohikoa zena, baina ez mendebaldean eta Gares aldean: *gizon gau, mutiko goi, etxe gura, egia gebek, libru goiek, denbora gaietan...* (Elkano) / *gizon au, mutiko oi, etxe ura, harri ebek, libru oiek, denbora aietan...* (Gares, Oltza, Goñi).
14. Aditzean gauza interesgarri franko daude gure alderdian; deigarriena beharbada iraganeko *n*-ren galtzea izanen da: *etorri ze, etzekite* «ez zekiten», *igan - igo gine, imini ziot* «ipini zioten» «ipini zien», *uzten zuzte* «uzten zituzten», *zego* «zegoen», *zeude* «zeuden», *zindoaza* «zindoazen», e.a.
15. Aditz perifrastikoetan *iten dut* forma *iteunt* bihurtzen zen, *iten dute*, berriz, *iteunte, goratzen dute* -> *goratzeunte, erraten dizu* -> *errateinzu, galdeiten dizu* -> *galdeiteinzu, jaten ditu* -> *xateintu*, e.a.
16. Osagarri zuzena plurala zenean *-it-* ibiltzen zuten aditzean: *eman tiot* «eman dizkiot», *ekarri zinditira* «ekarri zenizkidan», *ematen zitiola* «ematen zizkiola», *erran balitio* «erran balizkio», adibidez.

17. Ohikoa zen *zitzai*on edo *zitzai*zkion errateko partez *zekio*, *zekizkio* ibiltzea: *hasi zekizkio* «hasi zitzaizkion», *mintzatu zekio* «mintzatu zitzai»on», *agertu zekio*te «agertu zitzaien», eta abar. Gaur egun hone-lakoak Sakanan aditzen dira, orainaldian ere: *gustatzen dakit* «gustatzen zait», *faten banakizu* «joaten banatzaizu».
18. Aginteran-eta aditzak *d-z* hasten ziren: *barka dazkiguzu* «barka iezazkiguzu», *eman dezaguzu* «eman iezaguzu», *erran drazadazu* «erran iezadazu», e.a.
19. Euskal Herriko ekialdean bezala, *xatera eman zio*, *itera utzi zio*te erra-ten zen Iruñerrian, ez batuan normalak diren *jaten eman zion*, *egiten utzi zien*.
20. Bestalde, ugariak ziren *-tu* bukaera zuten aditzak: *bialdu* «igorri», *botatu*, *egondu*, *etsitu*, *ibildu*, *idukitu*, *iraundu*, *izendu* – *izandu*.

Joskeraren arloan erlatiboak egiteko *-ikako* ibiltzen zen: *trago samin gura eta guk merexirikako penak*, *inikeko bekatuek*. Denborazkoetan, berriz, *-ela(r)ik* eta *-nean* aurkitzen ditugu, lehena usuago, irudi duenez: *Jauna, oroi bedi nitas, doaielarik bere erreimura; maian zegolarik; ellegatu zelarik*, eta abar.

Aipatu ditudan ezaugarriak, edo hauetako batzuk, bitxi gertatu izanen zaizkizue beharbada, edo beharbada ez. Kontua da horietako gehienak gaur egun ezin direla euskara batuan, nahi izanta ere, txertatu edo erabili, arauak emanak direlako. Beraz, galdera da: zer atera dezakegu Iruñerriko euskara galdutik hizkuntza estandarrean sartzeko? Nire irudiko erantzuna hau da: hiztegia eta esamoldeak balia ditzakegu.

Erraterako, Elkanoko Lizarragak zerabilen hiztegi aberatsetik honako ale hauek har ditzakegu: *ahakar egin* «haserre eman, errieta egin», *ahalkegorritu* «lotsagorritu», *beharrextena* edo *beharrextenkeria* «egin behar ez den gauza», *angabetu* «unatu», «indarrrik gabe gelditu», *ederreitsusia* «pundonor» edo; *erdikal* «bitartekoa», «ez handia ez txikia ez dena»; *eskunara izan*, *eduki* «iris-pidean izan», *lotsarritu* «ikaratu»; *euria uharreka ari izan* «euria zurrupitaka ari izan», *urrin* «usain txarra», *urrindu* «usain txarra paratu», *urrinzu* «usain txarrekoa» eta abar. Bestalde, hemengoa zen eta den *txindila* hobets dezakegu, *dilista* arrotzaren ordez, *ugaldea* ere erabil dezakegu, *ibaia*-rekin batean.

Atzizkietan oinarriturik dauden esamolde eta antzekoetan *joanetorriketan ibili, sarrateraketan ibili, arroituketan eraman* «zalapartaka eraman» erabil ditzakegu, adibidez. Kopuru handia adierazteko Nafarroako beste leku batzuetan ere oraindik indarrean dagoen *-keta* hobets dezakegu gauden inguru honetan: *arrainketa, diruketa, egurketa, elurketa, jendeketa, ondasunketa* eta abar, edo *-kara* dutenak: *arinkara* «arin antza», *beltzarankara* «beltzaranxka», *epelkara* «franko epelkiro» eta beste asko.

Esamolde-atsotitzetan eta bukatzeko, ale bakarra aipatuko dut, edo hobeki erran, ale beraren bi aldaera: *arrautza txar bat eta anitz karaka* eta *arrautza txar bat eta guzia karaka*, hots, gaztelaniazko *mucho ruido y pocas nueces*-en baliokidea den forma. Holako asko ditugu Iruñerriko testu eta hitz bildumetan eta uste dut ez zaizkigula gaizki etorriko ditugun hutsune sakon horiek betetzeko.

Azken hitzak

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Arratsalde on guztioi:

Lehendabizi, eskerrak zuei, gaur, ageriko ekitaldi honetan, hizlari eta kantari gisa parte hartu duzuenoi.

Eskerrak, hasteko, Patxi Salaberriri, Nafarroa eta euskara erro-errotik loturik daudela erakutsi digulako. Euskaltzaindia Nafarroako erakundea da, eta Nafarroako euskal gizartearen partaide da.

Eskerrak, orobat, Patxi Zabaletari. Berak gogoratu digu mundu jakin batek, aurreko belaunaldi batek erakutsi ziguna, hain zuzen ere, euskaltzale-tasuna. Egia da Jorge Cortes Izal zenaren bizi-zertzeladak entzutean, guztiok bat egiten dugula haren moduko ekintzaileen ahaleginekin. Bi hitzetan esateko, Jorge Cortes Izal, zalduna eta euskalduna.

Eskerrik asko, azkenik, Iñaki Etxezarretari eta ikastolei. Euskaltzaindiak bi sail ditu hasiera-hasieratik: *Iker* Saila eta *Jagon* Saila. Egun, Euskaltzaindia zeregin berrietan dabil murgilduta. Horiek ere badute euren esanahia *Jagon* jardunean. Bateko, euskalgintzaren erakundeekin batera lan egitea, adibidez, ikastolekin eta besteko, esan beharrik ez dago, euskalduntasunari baliabide berriak ekartzea eta hauen artean, gure ezaupideak aberasten dituen argitalpen berriak, gaur aurkeztu dugunaren tankerakoak.

Euskalduntasunean iraun, belaunaldi berriei erakutsi, euskara nonahi erabili... gaur ere bizi-egitasmo baten arrazoiak dira. *Nafarroa Oinez*en leloa

gogoratzuz, euskara munduz mundu doa eta bidaia horretan Euskaltzaindiaren goiburua ere erabilgarria dela uste dut, *ekin eta jarrai*.

Hori gauzatzeko hemen gaituzue Euskaltzaindia eta ikastolak. *Nafarroa Oinez* da esandakoaren agerbidea. Baina hor ez da agortzen kontua, kontu horrek eskatzen digulako guztioi datozen urteetan ere ekinean jarraitzea, emaitza onuragarriak eta aberasgarriak ekarriz euskalgintzari.

Horren harira ere, eta euskararen bizitzan bidaide garelako, Euskaltzaindiak *Paz de Ziganda* Ikastolari ematen dizkio bere lan batzuk eta, batez ere, bere *Argitalpen Katalogoa*, bertan titulu interesgarriak aurkituko dituelakoan ikastolaren bibliotekarako.

Bukatzeko, eskerrak *Paz de Ziganda* Ikastolako arduradun, irakasle, ikasle, guraso eta langileei, harrera ezin hobea eskaini digutelako eta zuei ere bai, eskerrak, zuen harreragatik eta hona hurreratzearren, eta gurekin batera, ageriko ekitaldi honetan parte hartzearren.

Goazen aurrera!